

ZABARREK LEZOKO HERRIARI



Itsasoko uren noraezak bagaramatza berriro ere leku ezjakin batera eta sortea lagun badugu, Espaniar armadako itsasontzi batekin topo egingo dugu eta inongo lotsarik gabe, beraiek herriari lapurtutako berriro lapurtuko dugu herrira buelta dadin.

Kresal usainak dagoeneko zapuztu ditu Jaizkibel magalaren usain koloretsuen oroitzenak. Egunak joan egunak etorri garrantzi gutxiko gauzak desagertzen dijoazkit burutik baina beti mantentzen dut txapel azpian nere herri goxoaren oroitzen bizia, beti mantentzen ditut herriko alaben eta semeen ongietorri bero bezain jendetsuak.

Aurten ere hor izango nauzue zuekin Santa Krutz festetan urtean zehar lapurtutako aberastasunak konpartitzeko asmoz. Egun zoragarri horietan guztiok banatu behar ditugu lortutako eta leku seguruenetan gordetako altxorra, ziur bait nago zuek ere gu guztion altxor preziatua ondo zaindu duzuela. Mundu guztian ibilia naiz eta ez dut sekula ikusi gure altxorraren parekorik, altxor guztien altxor dugun EUSKERA, inork inoiz lapurtuko ez digun EUSKERA, beti gure hortz zorrotzenekin babestu behar dugun EUSKERA. Ez nuke nahi eta egunen batean nere "Beltza" itsasontziari ikurriña bere mastiletik erortzea, ekaitz guztietan gogor heusten duen lokarri zaharra usteldu zaiolako.

GU HEMENDIK ETA ZUEK HORTIK, BAKOITZA BERE LEKUTIK, INORK INOIZ LAPURTUKO EZ DIGUN ALTXORRA TXAPEL AZPIAN GORDE BEHAR DUGULAKO...

TINKO GUREAREKIN LEZOARROK!!!
LASTER IKUSIKO DUGU ELKAR!!!

JOXE ZABALA (ZABARRE)